


SASKIBALOIA



Kevin Willis hegaltz-pibota saskitik zintzilik.

Bostonek garaipena lortu zuen
Cleveland Cavaliersen kontra

NEW YORK

Boston Celtics taldeak azkenaldiko bolada onarekin segitzen du. Atzo 115-121 irabazi zuen Clevelanden, Cavaliersen kontra. Hau da, hain zuzen ere, Celticsek jarraian irabazten duen seigarren neurketa. Xavier McDaniel eta Kevin McHalek 20 puntu sartu zituzten. Baina Bostoneko antolatzaileek (Sherman Douglas eta Dee Brown) eginiko lana izan zen partidua erabaki zuena. Cavs-en aldetik, Brad Daughertyk 27 puntu egin zituen eta Marc Pricek, berriz, 28.

Chicago Bullsek garaipen erraza lortu zuen Orlandon, Magicen aurka (106-122). Egungo

txapeldunek ondo jokatu zuten talde moduan, eta ondorioz Horace Grant izan zen saskiratzailerik onena, 26 punturekin. Michael Jordanek 23 egin zituen. Orlandori dagokionez, Shaquille O'Neal ez zen batere fin ibili, eta ondorioz bere taldeak ezer gutxi egin ahal izan zuen. Nick Anderson, 24 punturekin, izan zen benetako maila eman zuen bakarra.

Atlanta Hawksek 126-118 irabazi zion Golden State Warriors taldeari. Dominique Wilkinsek bere berragerpena egin zuen, lau aste jokatu gabe eman ondoren. Guztira 28 puntu lortu zituen. Stacey Augmon eta Mookie Blaylockek 24 puntu lortu zituen bakoitzak.

EMAITZAK

Washington Bullets	121	Milwaukee Bucks	98
Orlando Magic	106	Chicago Bulls	122
Atlanta Hawks	126	Golden State Warriors	118
Cleveland Cavaliers	115	Boston Celtics	121
Indiana Pacers	112	Philadelphia Sixers	93
Utah Jazz	125	Miami Heat	122
Los Angeles Clippers	103	Houston Rockets	113
Sacramento Kings	93	New York Knicks	104
Portland Trail Blazers	109	Denver Nuggets	100
Seattle Supersonics	122	Phoenix Suns	113

TXIRRINDULARITZA

Indurainek berriz Giroa eta Tourra egitearen alde agertu da Etxabarri

Banestoko buruek nahiago dute Indurainek aurten Vuelta korritzea

Tourra irabaztea izango da aurten ere Miguel Indurainen helburu nagusia, baina Frantziako Itzuliaren aurretik atarrabiarrak Vuelta ala Giroa korrituko duen ez dute erabaki Banestoko arduradunek. Jose Miguel Etxabarri zuzendariak, nolana ere, Tourra prestatzeko Giroa Induraintzat egokiagoa dela adierazi du.

ESTEPONA

Banestoko 21 txirrindulariak, zuzendariak, teknikariak eta medikuak astebete daramate Esteponan, eta etzi arte Malagan jarraituko dute, hurrengo denboraldia aztertu eta helburuak zehazteko. Vuelta, Giroa eta Tourra izango dira Banestoren erronka nagusiak, eta Espainiako Itzulian Perico Delgado hirugarren garaipenaren bila aterako den bitartean, Indurainen helburu nagusia Tourra hirugarrenez jarraian irabaztea izango da. Atarrabiarrak denboraldi osoa Frantziako Itzuliari begira prestatuko du, baina aurretik beste itzuli handi bat egingo du, eta oraindik Banestoko arduradunek ez dute zehaztu Indurain Vueltan ala Giroan izango den.

Datorren astean Jose Miguel Etxabarri eta Eusebio Unzué, Banestoko buruekin bilduko dira, eta bertan erabakiko dute taldeko lider bakoitzak zein itzuli handi egingo duen, horren berri urtarilla amaiera arte emango ez duten arren.

DELGADO
BURU
VUOLTAN

1992an Banestoko lider bakoitzak zein proba korritu aukeratzekoan bete betean asmatu zuten kirol zuzendariak, gero



Banestoko txirrindulariak, Esteponan entrenatzen.

emitzek erakutsi zuten. Eta aurten ere, Indurainek Vuelta bazterrerara uztearen alde agertu da Etxabarri. «Hotzarekin arazoak izan ohi ditu Miguelek, eta Giroa gainera, berez, hobe da Tourra prestatzeko. Oraindik ezin dezaket esan Indurainek Giroa eta Tourra korrituko dituela, horretarako Banestoko nagusien baimena behar baitut. Baina Pedro Delgado gogo handiz da hirugarrenez Vuelta irabazteko, eta Espainiako zaletuak gainera oso ondo ezkontzen dira Pericorekin. Nahikoa arrazoi iruditzen zait

Indurainek Giroa korritzeko, interes komertzialek Miguel Vueltan izatea eskatzen badute ere».

Banestoren jarraipenaz argibideren bat ere eman zuen Etxabarri, oso zehatza izan ez arren. Kirol zuzendariaren esanetan, «jarraitzeko asmoa badute, baina oraindik erabakia ez dute hartu, eta nik beste etxeen eskaintzei jaramon egitea normala da; baina argi dago Banestok lehentasuna duela». Jakinaenez, Banestoko 17 txirrindularik denboraldi amaiera arteko kontratua baino ez dute.

FUTBOL AMERIKARRA

Super Bowlerako txartelaren bila

DONOSTIA

San Francisco 49ers-Dallas Cowboys eta Miami Dolphins-Buffalo Bills ariko dira konferentzietako bi finaletan. National Conferenceko finalerdietan, Dallasek 34-10 irabazi zion Philadelphia Eagles taldeari. Texaseko NFL osoko defentsarik onena dute, eta hori argi utzi zuten Eaglesen kontra.

Super Bowl final handira sailkatzeko lan handiak izango ditu

ordea. Aurrean, adituen esanetan titulua eskuratzeko faborito nagusia den taldea izango dute Dallasekoek, San Francisco 49ers hain zuzen ere.

Kaliforniakoe denboraldiko quarterback onena izan den Steve Young dute, eta horrez gain Joe Montana handia ere jokatzeko prest dute. Orain arte nagusitasun handia erakutsi dute Ninersek, eta ez dirudi Cowboysen aurka huts egingo dutenik. Dallasantzat, konferentziako finala

jokatzen duen lehenengo aldia izango da.

American Conferenceko finalerdian berriz, Miami Dolphins taldeak izugarrizko jipoia eman zion San Diego Chargersi (31-0). Dan Marino, Miami-ko quarterback bikain jokatu zuen, eta Ligako onenetarikoa dela argi utzi zuen. Azken bi urteetan Super Bowlean aritu den Buffalo Bills izango du ordea, aurrean. Pronostikoa ez dago batere argi kanporaketa honetan.



ANTSOAINGO UDALA

EDIKTUA

Antsoaingo Udal Plenoak 1992ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Antsoaingo Hiri Antolaketarako Plan Orokorren Hirigintz Arauetako —Lurzoru Ez Urbanigarriari buruzkoak— 40. artikulua hasiera batean aldatzea erabaki zuen eta, era berean, aldaketak ukitutako lurralde eremu osoan lizentzien ematea etenda gelditu da.

Lurzoru Erregimena eta Hiri Antolaketari buruzko Legeak erabakitakoaren arabera, espedienteak iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hurrengo hilabeteko epean jendaurrean jarriko da.

Antsoainen, 1993ko urtarrilaren 11n.
ALKATE-LEHENDAKARIA